


— CICLISMO DE MONTAÑA —

OLLOKIATIK-OLLOKIRA

bi egunetan. Irailaren 9 eta 10

IÑAKI VILLANUEVA





JOAN den irailaren 9a bi egunetako txirrindulaz ibialdia egitekotan Ollokira lepora ailegatu ginen. Motxilak prestatu eta muga ondoan asten diren hiru pista artean erdikotik abiatu ginen. Lehen pago artean eta gero zuaitzarik gabe eremuan pixka bat jeitsi ginen gure eskuinaldean bide tente bat aurkitu arte. Hasieran nahiko gogorra da, baina hemendik aurrera ez dugu arazorik izango Taplaraino heltzeko Idokorriaren ezkeraldetik.

Taplatik jarraitu ginen pista on batetik Agaibelerantz. Hemen 180 gradotako bira ondoren aldapa bera hasten da Aezkokako Villanuevara norabidera. Herri honetako herritar batekin topatu ginen eta behar zigun argibidea eman zigun erderaz: Aska baten ondoan, belradi eta patatadi batetik, Orbaizarako pistara pasa daiteke. Esan zigun ere, gaztea zela euskaraz mintzatzen zuen egunero, baina gaur egun praktika galdu duela, bere herrian ia ia ez bait dago norekin hitz egitea euskaraz. Zalantzarik gabe, erreflexionatzeko gai interegarria guretzat.

Orbaiztatik arma olatara laister ibili ginen errepletetik. Hau gauza harrigarria! Iratitik datorren pistatik lau gupil traziozko automobil pila bat agertu ziren. Nahiz eta «Travesía entre dos mares» ari ziren egiten, automobil batzuek Paris-Dakarra egiten ari zirela ziruditen, eta gainera motorista frantses batak ia ia topo egin zuen hauetako baten kontra. Hau lastimal!

Zorionez, Itolaz errekararen pistan ez zegoen trafikorik. Pista hau hartzeko, arma olako eliza pasa ondoren ezkeraldean hormigoizko zubitik hasi ginen. Pago itzalpean bere aldapak gainditu genituen pinu altuen ingururaturik belardi batetara ailegatu arte. Benetako leku ederra atsedean luze bat hartzeko. Hemendik eskuin bidea hartu genuen, gero zabaltzen da eta aldapa bera laister burdinezko ate batetara iritsi ginen. Pista honetatik zuzen zuzen Orreagara ailegatzen da, gure proposamena politagoa da: Atea baino lehen ezkeraldekoko bidetik eta berehala eskuinaldera, baso barruan sartzen den bidetik. Ibilgailu gurmarkagatik erne ibili behar da leku laura ailegatu arte, gero, Urrobi pasa ondoren, errez aurkitu genuen gure meta: Auritz.

Bigarren etapa

Gosaltzeko, asfaltotik kilometro batzuk Ibañeta garaia iritsi arte. Gero, Lindus pistatik eta aldapa gogor bat gainditu ondoren, borda ondagarri baten ezkeraldetik jarraitu ginen. Lehen aldapa bera eta gero gora Lindus tontorraraino. Eguraldi lainotsua zegoenez, baso bazterretik jarraitu ginen eta gero mendixka batetik alderatu ginen bi harkaitz artean pasabide bat aurkitu arte.

Lainopean, gure erreferentzi hoberena hemendik aurrera, alanbrada izango da. Alanbrada jarraitzen txirrindulak bultxatu behar genituen aldapa gogor bat gainditzeko, baina gainetik, errepetidor baten ondoan, oso atsegin jeistea besterik ez zitzaigun falta Sorogainera ailegatzeko. Bapatean lainoa desagertu zen eta aldi berean kriston ekaitza arripatu gintuen. Euria mara mara eta azkenean kaskabarraren azpian Pablaren etxean sartu ginen zerbait jateko aintzaki on batekin.




◀ Auritzera ailegaten.

Zorionez, udako ekaitza besterik ez zen eta kafe on bat hartu ondoren Linzoanera abiatu ginen. Herri erditik Santiago bidea zeharkatzen da, baina hasieran nahiko gogorra da txirrindulaz egiteko eta ezkerretatik igotzen den pistatik igo daiteke. Goian Santiago bidea berriro aurkitu genuen eta bere senalapenaren ezkerretara Erro garaira joan ginen bidea gozatzan. Zati hau, benetako bide zoragarria da, mendiko

txirrindularitzako aproposa egitea dirudi. Erro garaitik Santiago bidea utzi genuen eta ezkerreko pistatik jarraitu ginen. Egoalderantz goaz Erro eta Esteribar Ibarrek artean belardi batekin topatu arte. Belardia pasatu eta Erre herra jeitsi ginen. Erreatik berriaz asfaltotik kilometro pare bat aldapa gora garaian hasten den pistaraino ezkerredera. Laister topatu genuen ehiztari bidea batekin. Hemendik eskuineko pista, prohibi-

do el paso, terreno particular lebrero bat duena, hartu genuen eta bereala ezkerrederantz. Etxalde honek bidegurutzetara dauka muga. Zuzen jarraitu ginen eta aldapa bat gainditu ondoren gure hurrengo erreferentzia ikusi genuen, telebistako errepetidor haundi bat.

Errepetidorera ailegatu baino ehun metro lehenago, ezkerrederantz bira bat eman genuen beste pistatik Egües Ibarra gainean eta



DATU INTERESGARRIAK

- Orduategia: Lehen etapa 6,5 ordu eta bigarrena 8 ordu. Atseinaldiekin eta erritmo lasaiaz. Ala ere, fondo fisiko ona edukitzea derrigorrezkoa da.
- Gaua Urrobi kampineko aterpean pasa daiteke. JantokTeta janari denda ere ba daude.
- Abodi lainoetan baldin ba dago, eskuinalde-

ko pistatik hastea aukera hoberena izango da eta horrela Irati arazorik gabe pasa daiteke.

- Ibañeta eta Sorogain arteko tramua sarritan lainoetan dago. Egoera honetan oso polita da, baina aldi berean zaiea ere bai. Horregatik ez da bat ere gomendarri lainoetan gidari on gabe egitea.

RESUMEN

De Olloki a Olloki

SE cuenta una larga travesía de bicicleta de montaña en dos días. La primera etapa va desde el collado de Olloki, en las laderas del Ori, hasta el pueblo de Auritz (Burguete), por la sierra de Abodi y el valle de Aezkoa para acercarse a Orreaga (Roncesvalles) y bajar a dormir al camping de Urrobi (con buena cocina).

El recorrido del segundo día sigue la dirección del Camino de Santiago. Comienza por los paisajes de La fuga de Segovia, a través de las nieblas que se echan entre el Lindus y Sorogain. Luego baja hacia el sur, siguiendo el curso de las aguas que vienen del Pirineo, entre los valles del Erro y del Arga, hasta llegar a la aldea de Olloki, a las puertas de Iruñea.



▲ Auritz ondoan.

harritsu aldapa bat jeitsi ta gero, Ubarmin Klinika ikusten denean, eskuinaldeko bidetik abiatu ginen berrehun metro gutxi gora bera. Berrero aldapa bera ezkerraldera, Alzuza herrian eta erreka bat artean. Erreka hau zaldiko pasabidetik pasatu genuen eta berehala Ollokira joaten den bidea aurkitu genuen.

Nekatu baino pozik egin genuen azken tramua Ollokitik Huartera bide batetik eta azkenean Iruñera asfaltotik.



▲ Santiagoko bidean.

▲ Linduxetik Sorogainera lainoetan.

▼ Itolaz aldapak gainditu ondoren, atsedean batean.

DIZAR

Irabia urtegia

JRU

ORHI

ABODI

Ollokia

Otsagi

urrieta

20 Km

